2018

# Urtarrila-Otsaila
# Enero-Febrero

Erakusketak Exposiciones

Zinema Cine

Antzerkia Teatro

Magia Magia

Ipuin-kontalariak Cuentacuentos

Musika Música

Dantza Danza



## Atarrabia-Villava
## Kultura agendaAgenda cultural

casa de cultura de villava
atarrabiako kultur etxea

## Kultur Etxearen xedea

**Kultur Etxea Atarrabiako Udalaren** hurbileko kultur ekipamendua da eta herritargo kulturala eraikitzea du xede, bai arte prozesuen bidez, bai ekintza soziokulturalaren bidez, betiere kultur eragileen, taldeen eta herritarren arteko elkarlanean eta partaidetzan oinarriturik.

**Hona hemen zer eskaintzen duen Kultur Etxeak:**

- Kultura zabaltzeko programak (arte eszenikoak, musika, arte plastikoak, liburutegia, eta irakurzaletasuna bultzatzeko ekimena, zinema eta ikus-entzunezkoak, hitzaldiak…).
- Leku prestatuak arte jarduerak egiteko, taldeentzat nahiz artistentzat.
- Lanerako tokiak herriko elkarte eta taldeen saio komunitarioetarako.

Kultur Etxeko espazio eszenikoan 294 lagun sartzen dira, eta halaber, badira hainbat erabileratarako sei gela, erakusketa gela bat, plastika gela bi (helduentzat eta haurrentzat), antzerki-dantzarako gela bat, eta hiru musika gela. Gainera, liburutegian badira bi irakurketa gela (helduentzat eta haurrentzat). Bestalde, bibliografia-funts zabala dauka eskura, eta zerbitzu aunitz eskaintzen ditu.

**Kultur Etxeko ordutegia:** astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:30era eta 15:00etatik 21:30era

## Finalidad de la Casa de Cultura

La **Casa de Cultura** es el equipamiento cultural de proximidad del **Ayuntamiento de Villava** cuya finalidad es construir ciudadanía cultural a través de los procesos artísticos y la acción sociocultural, en un entorno colaborativo y participativo de agentes culturales, colectivos y ciudadanía.

**La Casa de Cultura ofrece:**

- Programas de difusión cultural (artes escénicas, música, artes plásticas, biblioteca y animación a la lectura, cine y audiovisual, conferencias…).
- Espacios especializados para la práctica artística a entidades y artistas.
- Espacios de trabajo para las actuaciones comunitarias de asociaciones y colectivos locales.

La Casa de Cultura cuenta con un espacio escénico de 294 localidades, una sala de exposiciones, seis salas polivalentes, dos aulas de plástica (adultos e infantil), un aula de teatro-danza y tres salas musicales. Además, una biblioteca con dos salas de lectura (adultos e infantil) y ofrece un amplio fondo bibliográfico y múltiples servicios.

**Horario de la Casa de Cultura:** De lunes a viernes, de 9 a 14:30 y de 15 a 21:30

# “Besta Jira” lehiaketako argazkiak / Fotografías del certamen “Besta Jira”

Argazki-aukera. Modalitateak: Koloretan, Zuri-beltzean eta Herriko gaia / Selección. Modalidades Color, Blanco y negro y Tema local



“Las recolectoras”
**Luis Mª Barrio Saenz**
1. saria Koloretan / 1º premio Color



“Apoyo”
**Ángel Atanasio Rincón**
1. saria Zuri-beltzean / 1º premio Blanco y negro



“A vista de lagartija”
**Javier Moreno Simón**
1. saria Herriko gaia / 1º premio Tema local

**- 21**
Urtarrila
**Enero**

**Ordutegia / Horario**
18:00 - 21:00 astelehenetik ostiralera / de lunes a viernes;
19:30 - 20:30 ikuskizuna dagoen igandeetan / domingos con espectáculo
**Lekua / Lugar**
Kultur Etxeko atondoa / Hall de la Casa de Cultura
**Sarrera / Entrada**
Dohainik / Gratuita

Erakusketa
Exposición

**24**
Urtarrila
**Enero**
**-**
**11**
Otsaila
**Febrero**

**Ordutegia / Horario**
18:00 - 21:00 astelehenetik ostiralera / de lunes a viernes;
19:30 - 20:30 ikuskizuna dagoen igandeetan / domingos con espectáculo
**Lekua / Lugar**
Kultur Etxeko atondoa / Hall de la Casa de Cultura
**Sarrera / Entrada**
Dohainik / Gratuita

# “África sin complejos. Descubre otra parte de la realidad”

**Argazkia / Fotografía**
**Egilea / Autor**
Fernando Egiluz




Fernando Egiluz argazkilariak “África sin complejos. Descubre otra parte de la realidad” izenburuko erakusketa ekarriko digu, Afrikako gizartearen alde ezezagun, bizi eta sortzaile bat erakusteko; gizarte horretan, tradizioa eta modernotasuna elkarturik, jendeak topikoetatik ihesi aurre egiten dio etorkizunari. Azken buruan, bestelako begirada Afrikari.

*El fotógrafo Fernando Egiluz nos acerca en la muestra “África sin complejos. Descubre otra parte de la realidad” una parte desconocida de la sociedad africana, vital y creativa, en la que confluyen tradición y modernidad y que afronta el futuro alejándose de los tópicos. En definitiva, otra forma de mirar a África.*

Erakusketa
Exposición

Pintura / Pintura

# Claroscuro taldearen talde erakusketa / Exposición colectiva del grupo Claroscuro

**14**
Otsaila
**Febrero**
**-**
**4**
Martxoa
**Marzo**



**Ordutegia / Horario**
18:00 - 21:00 astelehenetik ostiralera / de lunes a viernes;
19:30 - 20:30 ikuskizuna dagoen igandeetan / domingos con espectáculo
**Lekua / Lugar**
Kultur Etxeko atondoa / Hall de la Casa de Cultura
**Sarrera / Entrada**
Dohainik / Gratuita

Claroscuro taldeko kideek egindako lan aukeratuak daude ikusgai. Kultur Etxean biltzen dira eta naturaletik margotzen dute.

*Selección de estudios realizados por las personas integrantes del grupo Claroscuro, formado por aficionados a pintar del natural, que se reúnen en la Casa de Cultura.*

# Haurrentzako zinema
# Cine infantil

**Ordua** / **Hora** 17:00
**Lekua** / **Lugar**
Antzokia / Teatro
**Sarrera** / **Entrada**
1 €

## "Carlitos y Snoopy. La película de Peanuts"



**13**
Urtarrila **Enero**
Larunbata **Sábado**
**Hizkuntza** / **Idioma**
Gaztelania / Castellano



## "Bizarzuriren ipuina"

**20**
Urtarrila **Enero**
Larunbata **Sábado**
**Hizkuntza** / **Idioma**
Euskaraz / Euskera



## "Bob Esponja. Un héroe fuera del agua"

**3**
Otsaila **Febrero**
Larunbata **Sábado**
**Hizkuntza** / **Idioma**
Gaztelania / Castellano



## "Magiaren etxea"

**17**
Otsaila **Febrero**
Larunbata **Sábado**
**Hizkuntza** / **Idioma**
Euskaraz / Euskera

**Konpainia / Compañía** Malaje Sólo **Egilea / Autor** José Antonio Aguilar, Cía Malaje Sólo **Zuzendaritza / Dirección** Antonio Campos **Aktoreak / Intérpretes** Antonio Blanco, José Antonio Aguilar

# “Mucho Shakespeare”

**14**
Urtarrila
**Enero**
Igandea
**Domingo**

**20:00**
**5 € leihatila, 4 € internet / 5 € taquilla, 4 € internet**
**75 min**



Bi komiko andaluziar Londresera joan dira lan bila, eta Globe Teatre antzokian hasiko dira zerbitzari lanetan, hau da, William Shakespeareren lokalean. Behin batez, antzokian inor ez dagoela, biak agertokira igo, eta lehentxeago ikusitako antzezlana hasiko dira beren kasa interpretatzen, ederki pasatuta. Segurtasun-kamerek dena grabatuko dute, ordea; bideoak youtuben daude ikusgai, eta hogei milioi bisitatik gora izan dituzte! Arrakasta handi hori ikusita, Shakespearek bere antzokia estreinatzea proposatuko die. Eta egun handi hori iritsi da…

*Dos cómicos andaluces emigran a Londres y encuentran trabajo como camareros en el ambigú del Globe Teatre, el local de William Shakespeare. Un día, con el teatro vacío suben al escenario e interpretan a su manera lo que un rato antes han visto, pasándoselo en grande. Pero las cámaras de seguridad están grabando ¡y los videos acaban en youtube, donde reciben más de veinte millones de visitas! Ante semejante éxito, Shakespeare, les propone estrenar en su teatro. Y ha llegado el gran día…*

Zine-foruma emakumea
Cine-fórum mujer

# "Grandma"

**18**
Urtarrila
**Enero**
Osteguna
**Jueves**

**19:00**
**Sarrera doan / Entrada libre**



**Urtea / Año** 2015
**Nazionalitatea / Nacionalidad** AEB / EEUU
**Zuzendaria / Director** Paul Weitz
**Aktoreak / Reparto** Lily Tomlin, Julia Garner
**Iraupena / Duración** 79 min
**Ez da gomendagarria 12 urtetik behekoentzat / No recomendada para menores de 12 años**

Sage bere amatxi Elleren etxera iritsi da, sos bila, diru behar gorrian baitabil. Elle ez da une gozoa bizitzen ari, neska-lagunarekin hautsi berri baitu. Bidaiari ekingo diote elkarrekin, huraxe lortzeko: Ellek bakeak eginen ditu bere iraganarekin; Sagek, berriz, etorkizunari aurre egiten ikasiko du. Drama garratz eta ironikoa, amatxi eredu berria agertuko diguna.
***María Castejón*** Historian doktorea, idazlea eta blogaria. Aditua genero-errepresentazioetan, ikus-entzunezkoetan.

---

*Sage llega a casa de su abuela Elle en busca de dinero urgente. Elle no está pasando un buen momento porque acaba de romper con su novia. Juntas inician un viaje para conseguirlo, una experiencia que cambiará su forma de ver la vida: Elle logrará hacer las paces con su pasado, mientras que Sage aprenderá a hacer frente a su futuro. Drama mordaz e irónico que nos presenta un nuevo modelo de abuela.*
**María Castejón**, *doctora en Historia, escritora y bloggera. Especialista en representaciones de género en los medios audiovisuales.*

Magia
Magia

**Magoak** / **Magos/as**
Elena, Mago Taylor,
"Señor Pérez"
**Antolatzaile eta aurkezlea** /
**Organiza y presenta**
Mago Iurgi

# "Magia Gala" / "Gala de Magia"

**21**
Urtarrila
**Enero**
Igandea
**Domingo**





**Elena** aragoitarra egungo hipnotizatzailerik onena da, "Hipnosis total" izeneko hipnosi-antzerki ikuskizunean erakutsiko duen bezala.
**Mago Taylor** ETBko magoa da, eta helduendako magia eta umorea eskainiko dizkigu; ikusmenerako eta entzumenerako ikuskizuna, alegia.
**Señor Pérez** gasteiztarrak ekarriko duen magia-saio poetiko bisualari saria eman zioten Granadako azken nazioarteko magia jaialdian.

---

*La aragonesa **Elena**, la mejor hipnotizadora del panorama actual, ofrecerá su espectáculo de hipnosis teatral "Hipnosis total". **Mago Taylor**, el mago de la ETB, nos traerá momentos de magia y humor adulto, un espectáculo para la vista y para el oido. El **Señor Pérez**, de Vitoria, nos ofrecerá el número de magia poético-visual con el que conquistó al jurado del último Festival Internacional de Magia de Granada.*

**20:00**
**5 €**
**70 min**
**14 urtetik gora** /
**A partir de 14 años**

Ipuin-kontalariak
Cuentacuentos

**18:00**
**Erakusketa gela / Sala de exposiciones**
**Dohainik** (gonbidapena saioa hasi baino 20 minutu lehenago hartu behar da) / **Gratuita** (previa recogida de invitación 20 minutos antes de la función)
**Gutxienezko adina / Edad mínima**
4 urte / 4 años



**23**

Urtarrila **Enero**
Asteartea **Martes**

“Cuentos en mayúsculas”
Sergio de Andrés .
Gaztelania. *Castellano*



**25**

Urtarrila
**Enero**
Osteguna
**Jueves**

“Itsasoaren hotsa”
Birjiñe Albira Euskaraz. *Euskera*

# "Dudas razonables"

**Konpainia / Compañía** Banarte Antzerki Taldea
**Zuzendaritza / Dirección** Javier Liñera
**Aktoreak / Intérpretes** Aitor Coello, Rafa Herce, Rosane Mateo, Loli Reñón, Dolma Romera, Isabel Rodríguez, Eduardo Falces, Eduardo Pombar, Idoia Bilbao, Garbiñe Biurrun

**27**
Urtarrila
**Enero**
Larunbata
**Sábado**

**20:00**
**3 €**
**90 min**



Herri-epaimahaikide batek epaia hartu behar du, eta kideak eztabaidan ari dira auziperatutako pertsona erailketa delitu baten errudun den edo ez. Hasieran, ziur daude errudun dela, baina gero, "arrazoizko zalantzak" sortuko dira. Testu dibertigarri, garratz eta bizia.

*La obra nos sitúa ante las deliberaciones de un jurado popular encargado de dar un veredicto: culpable o no culpable de un delito de asesinato. Las certezas iniciales darán paso a las "dudas razonables". Un texto divertido, agrio y dinámico.*

4

Otsaila
**Febrero**
Igandea
**Domingo**

# Txuma Flamarique: "Eboluzioa"

**20:00**
**7 € leihatila, 5 € internet / 7 € taquilla, 5 € en internet**






"Eboluzioa" lanean, Txumak bere bizitzan bidaide izan dituen pertsonengan pausatu du begirada. Abentura honetan, Iker Bengotxea (ahotsa), Jon Uribeetxeberria (bateria) eta Jabiertxo Pintor "Txo" (baxua) izan ditu bidelagun, taldean sartu den azkena, alegia. Denak kalitate nabarmeneko musikariak dira, Estatuko nahiz nazioarteko artista aunitzekin aritutakoak. Rock amerikarraren funtsa; inola ere galdu behar ez den emanaldia.

*En "Eboluzioa" Txuma hace un recorrido por las personas de su vida. Le acompañan en esta aventura Iker Bengotxea a la voz, Jon Uribeetxeberria a la batería, y Jabiertxo Pintor "Txo" al bajo, última incorporación a la banda. Músicos de calidad contrastada que han tocado con much@s artistas del panorama nacional e internacional. Rock americano en esencia, una actuación que no hay que perderse.*

# “Larrain dantza” / “Baile de la Era”



**Abesbatzak / Corales**
Atarrabia Abesbatza, Coral San Andrés, Mirua Abesbatza
**Dantza taldeak / Grupos de danza**
Lizarraldeko Herri Dantzen Tailerra, Mikelats Dantza Taldea, San Lorentzoko Dantzariak
**Musikariak / Músicos**
Gaiteroak, Ezpelur Fanfarrea, Txalapartariak
**Piano-jotzailea / Pianista**
Iosu Larumbe
**Antzerki taldea / Grupo de teatro**
El Bardo Antzerki Taldea
**Moldaketa musikalak / Arreglos musicales**
Máximo Olóriz
**‘Larrain dantza’-ren euskarazko hitzen egilea / Letra de “La Era” en euskera**
Mikel Taberna
**Argiztapena / Iluminación**
José Mª Ballesta
**Eszena zuzendaritza / Dirección escénica**
Mikel Mikeo

Iazko maiatzean izaniko arrakastaren ondotik, Atarrabia Abesbatzak ikuskizuna berriz ere emanen du. Musika, antzerkia eta dantza uztarturik, Larrain Dantza tradizionalaren euskarazko letra estreinatu zen (Mikel Taberna), bai eta abesbatzarako harmonizazioa ere (Máximo Olóriz). Beraz, 160 lagun arituko dira, eta ikuskizunak dantza ezagun hori eguneratzeko eta haren balioa nabarmentzeko bidea emanen du.

---

*Tras el gran éxito obtenido en su estreno en mayo del año pasado, Atarrabia Abesbatza repone este espectáculo de música, teatro y dantza en el que se estrena la letra en euskera (Mikel Taberna) y la armonización para coros (Máximo Olóriz) de la tradicional Larrain Dantza-Baile de la Era. En el espectáculo participan 160 personas, que contribuyen a la actualización y puesta en valor de esta tradicional dantza.*

Otsaila
**10, 11**
Febrero

Larunbata eta igandea / **Sábado y domingo**

**20:00**
**6 €**

# “Comedia de Amores, Amoríos y Amantes”

**14**
Otsaila
**Febrero**
Asteazkena
**Miércoles**

**19:30**
**Sarrera doan** /
**Entrada libre**



**Konpainia** / **Compañía** Producciones Maestras
**Zuzendaritza** / **Dirección** Ana Maestrojuán
**Aktoreak** / **Intérpretes** Iratxe García Úriz, Ángel García Moneo

Umorea beti ardatz harturik, antzezlanak lau istorio taularatuko ditu, eta bakoitzak maitasuna eta pertsonen arteko harremanak era ezberdinean ulertzeko modua azalduko du, garai eta denbora ezberdinetan. Iraganeko garai batean, XVIII. mendean, ezkontza hitzartu bat erakutsiko digu, eta bikoteak lehen topaketari egin beharko dio aurre. Gero, gaur egunera etorrita, egungo bikote bat beste bikote baten zain dago, zertarako ote…? Etorkizunean, bi laguntza-dron zain daude ea zer pertsonarekin jarriko ote dituzten, eta kontu kontari ari dira beren esperientziez. Eta, epilogo jainkotiarraren gisan, kupido frustratu baten eta jainko berezi samar baten arteko elkarrizketa baten lekuko izanen gara.

*Siempre en clave de humor, esta obra nos presenta cuatro historias con distintos modos de entender el amor y las relaciones personales en contextos históricos y temporales dispares. En un tiempo pasado, siglo XVIII, nos muestra a un matrimonio concertado que se enfrenta a su primer encuentro. En el presente, asistimos al momento en que una pareja actual espera a otra que viene ¿a... ? En el futuro, dos drones de acompañamiento esperan reasignación humana hablando de sus experiencias. Y, a modo de epílogo divino, somos testigos de una conversación de un cupido frustrado con un dios algo especial.*

# “La vida empieza hoy”

19:00
**Sarrera doan / Entrada libre**

**Ez da gomendagarria 12 urtetik behekoentzat / No recomendada para menores de 12 años**



**15**
Otsaila
**Febrero**
Osteguna
**Jueves**

**Urtea / Año** 2010
**Nazionalitatea / Nacionalidad** Espainia / España
**Zuzendaria / Directora** Laura Mañá
**Aktoreak / Reparto** Pilar Bardem, Rosa María Sardá, Mariana Cordero, Lluís Marco, Sonsoles Benedicto, Osvaldo Santoro, María Barranco, Eduardo Blanco, Fernando Tielve
**Iraupena / Duración** 96 min

Adineko talde bat sexu ikastaro batera joan da. Zerk eraginda joan dira? Ba al du familiak horren berri? Horra hor gizarteak ahantzitako talde bat, badu zer ekarri handia, eta zer erakutsi handia ere bai, eta gainera, bizitzeko eta gozatzeko gogo handiz dabil. Hainbat istorio ikusiko ditugu, eta guztietan ere ohartuko gara adina eta sexua jarrera-kontua direla.
***María Castejón*** Historian doktorea, idazlea eta blogaria. Aditua genero-errepresentazioetan, ikus-entzunezkoetan.

---

*Un grupo de personas mayores acude a un curso de sexo. ¿Qué les mueve a hacerlo? ¿Su familia lo sabe? Asistimos a partir de un reparto coral, a las ganas de vivir y de gozar de un colectivo olvidado por la sociedad que tiene mucho de aportar y enseñarnos, Las diversas historias nos harán ver que la edad y el sexo son sólo una cuestión de actitud.*
**María Castejón**, *doctora en Historia, escritora y bloggera. Especialista en representaciones de género en los medios audiovisuales.*

Musika
Música

16
Otsaila
**Febrero**
Ostirala
**Viernes**

# Paz Ziganda Helduen Abesbatza / Coro de adultos de Paz de Ziganda

**20:00**
**4 €**
**60 min**



XX. mendeko egile batzuen lanak emanen dituzte. Era askotako lanak izanen dira; adibidez, Federico García Lorcaren testuendako ondutako doinu ederrak, nafar folklorean sustraitutako kantuak, etab. Taldea 2010ean sortu zen, eta hasieratik beretik, Mari Paz Arizkun izan da zuzendaria. Abesbatza gogotik ari da lanean azken urteotan, hala Nafarroan nola hemendik kanpo, eta makina bat kantaldi, ikuskizun eta lehiaketatan parte hartu du; esate baterako, Atarrabiako Koru Festan, 2016an, lehen saria eskuratuta.

*Cantarán una selección de obras de autores del Siglo XX de estilos muy variados que van desde bellas melodías escritas para textos de Federico García Lorca hasta las más arraigadas del folklore navarro. El grupo, dirigido desde su fundación en 2010 por Mari Paz Arizkun, ha desarrollado una intensa actividad en estos últimos años tanto en Navarra como fuera de la Comunidad Foral, participando en conciertos, espectáculos y concursos, como el "Koru Festa" de Villava en donde en 2016 consiguió el primer premio.*

# “The Primitals”



**Jatorrizko ideia / Idea original** Yllana, Primital Bros
**Zuzendaritza / Dirección** Joe O’Curneen
**Interpreteak / Intérpretes** Iñigo García, Pedro Herrero, Adrí Soto, Manu Pilas

**18**
Otsaila
**Febrero**
Igandea
**Domingo**

**20:00**
**6 € leihatila, 5 € internet / 6 € taquilla, 5 € internet**
**75 min**

Yllana eta Primital Bros batu egin dira a capelara egindako komedia musikal dibertigarri bat sortzeko. Gurea izan zitekeen planeta bateko lau aborigenek eszenatokia haiena dela aldarrikatuko dute, eta ikusleak konkistatzeko asmo irmoa erakutsiko dute -izan barre algaraka, izan aizkorakadaka-, baina betiere musikaren bitartez, espazio-denboran zehar egindako bidaietan esponjen modura jaso dituzten hamaika genero desberdinen bidez. Horren emaitza da "The Primitals", apur bat disfuntzionala den tribu baten historia arraro eta surrealista aurkeztuko digute, barne gatazka, handitasun amets, desoreka mental eta milaka urteko farmakopeaz lagunduta.

---

*Yllana y Primital Bros se han unido para crear un divertida comedia musical a capela. Cuatro aborígenes de un planeta que podría ser el nuestro reclaman el escenario dispuestos a conquistar al público -a carcajadas o a machetazos- pero siempre rebosando música de mil géneros que, como esponjas, han ido absorbiendo en sus viajes por los confines del espacio tiempo. De todo ello nace “The Primitals”, extraña y surrealista historia de una tribu ligeramente disfuncional, con luchas intestinas, sueños de grandeza, desequilibrios mentales y farmacopea milenaria.*

## Ipuin-kontalaria
## Cuentacuentos

**18:00**
**Erakusketa gela / Sala de exposiciones**
**Dohainik** (gonbidapena saioa hasi baino 20 minutu lehenago hartu behar da) / **Gratuita** (previa recogida de invitación 20 minutos antes de la función)
**Gutxienezko adina / Edad mínima**
4 urte / 4 años



**20**

Otsaila **Febrero**
Asteartea **Martes**

### "La barraca de Genaro Calatrava"

Sergio Salinas .

Gaztelania. *Castellano*



**22**

Otsaila **Febrero**
Osteguna **Jueves**

### "Flobin istorio eta ipuin"

Xabi Flamarike

Euskaraz. *Euskera*

# Oharrak / Notas de aviso

- Sarrerak ez dira aldatuko. Ikuskizuna bertan behera uzten bada bakarrik itzuliko da sarreren zenbatekoa.
- Puntualtasuna guztiz funtsezkoa da. Inor ez da Antzokian sartuko, behin emanaldia hasita.
- Sakelako telefonoak itzali beharko dira areto barnera sartu baino lehen.
- Ez da zilegi argazkiak egitea, filmatzea eta grabatzea.
- Haur eta familiendako ikuskizunetan, 8 urtetik beheko haurrak heldu batekin sartu beharko dira.
- Ez da zilegi aretoan janaria eta edariak sartzea.
- Kultur Etxeko langileek arauok eta Ikuskizun publikoen araudia betearazteko baimena dute.

- Las entradas no se cambiarán. La suspensión del espectáculo será la única causa para la devolución del importe de las entradas.
- Se ruega máxima puntualidad. No se podrá acceder al Teatro una vez iniciada la función.
- Los móviles deberán desconectarse antes de acceder al interior de la sala.
- No está permitido sacar fotos, filmar y grabar.
- En los espectáculos infantiles y familiares los menores de 8 años deberán entrar acompañados de una persona adulta.
- No se permite acceder a la sala con alimentos ni bebidas.
- El personal de la Casa de Cultura está autorizado para hacer cumplir estas normas y la normativa de Espectáculos públicos.

# Sarreren salmenta / Venta de entradas

- Leihatilan, astelehenetik ostiralera, 16:00etatik 21:00etara, eta sarrerarik gelditzen bada, ikuskizuna hasi baino ordu erdi lehenago.
- Interneten: www.atarrabia.es / www.villava.es

- En taquilla de lunes a viernes, de 16 a 21 horas y media hora antes del comienzo del espectáculo, si quedasen localidades.
- En internet: www.atarrabia.es / www.villava.es



www.facebook.com/Casa-de-Cultura-Villava

www.atarrabia.es
www.villava.es

### Urtarrila
### Enero

| A L | A M | A M | O J | O V | L S | I D |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
| 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 |
| 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 |
| 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 |
| 29 | 30 | 31 | | | | |

### Otsaila
### Febrero

| A L | A M | A M | O J | O V | L S | I D |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 1 | 2 | 3 | 4 |
| 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 |
| 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 |
| 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 |
| 26 | 27 | 28 | | | | |

## Urtarrila / Enero

**-21 Erakusketa. *Exposición.*** Argazkiak / Fotografía. XXII Certamen "Besta Jira"

**13 Haurrentzako Zinema. *Cine infantil.*** "Carlitos y Snoopy. La película de Peanuts". Gaztelania / castellano

**14 Antzerkia *Teatro.*** "Mucho Shakespeare". Malaje Sólo

**18 Zine-foruma emakumea. *Cine forum mujer.*** "Grandma"

**20 Haurrentzako Zinema. *Cine infantil.*** "Bizarzuriren ipuina". Euskaraz / Euskera

**21 Magia. *Magia.*** Gala de Magia / Gala de magia. Elena, Mago Taylor, Señor Pérez. Presenta Mago Iurgi / Presenta Mago Iurgi

**23 Ipuin-kontalaria. *Cuenta cuentos.*** Gaztelania / castellano

**24 Urtarrila / Enero - 11 Otsaila / Febrero Erakusketa. *Exposición.*** Argazkiak / Fotografía. "África sin complejos. Descubre otra parte de la realidad". Fernando Egiluz

**25 Ipuin-kontalaria. *Cuenta cuentos.*** Euskaraz / Euskera

**27 Antzerkia. *Teatro.*** "Dudas razonables". Banarte Antzerki Taldea

## Otsaila / Febrero

**03 Haurrentzako Zinema. *Cine infantil.*** "Bob Esponja. Un héroe fuera del agua". Gaztelania / castellano

**04 Musika. *Música.*** "Eboluzioa". Txuma Flamarique

**10, 11 Dantza. *Danza.*** "Larrain dantza-Baile de la Era"

**14 Otsaila / Febrero - 04 Martxoa / Marzo Erakusketa. *Exposición.*** Pintura / Pintura. Exposición colectiva del grupo Claroscuro / Exposición colectiva del grupo Claroscuro

**14 Antzerkia. *Teatro.*** "Comedia de Amores, Amoríos y Amantes". Producciones Maestras

**15 Zine-foruma emakumea. *Cine forum mujer.*** "La vida empieza hoy"

**16 Musika. *Música.*** Paz Ziganda Helduen Abesbatza eta Uharteko Virgen Blanca Abesbatza / Coro de adultos de Paz de Ziganda y Coral Virgen Blanca de Huarte

**17 Haurrentzako Zinema. *Cine infantil.*** "Magiaren etxea". Euskaraz / Euskera

**18 Musika. *Música.*** "The Primitals". Yllana, Primital Bros

**20 Ipuin-kontalaria. *Cuenta cuentos.*** Gaztelania / castellano

**22 Ipuin-kontalaria. *Cuenta cuentos.*** Euskaraz / Euskera


ANTOLATZAILEA / ORGANIZA

casa de cultura de villava
atarrabiako kultur etxea

ELKARTUTAKO GUNEA / ESPACIO ASOCIADO

NAFARROAKO ANTZOKI SAREA
RED DE TEATROS DE NAVARRA

LAGUNTZAILEA / COLABORA

Nafarroako Gobernua